

TITULARRAK	ADIERAZLEAK		
	Azken datua	Δ Urte artekoa (%) <small>*aurreko aldia</small>	Azken datuaren data
<ul style="list-style-type: none"> Azaroko biztanleria langabea -% 0,5 jaitsi da, eta 21.106 pertsonakoa izan da. Afiliatutako biztanleriak gora egin du; urrian baino % 0,9 gehiago da orain. Guztira 191.701 afiliatu daude. Bilboko enpresetan 12.089 kontratu sinatu ziren, hau da, 2022ko azaroan baino -% 1,6 gutxiago. Ostatu-gauek gora egin dute, 155.646 dira orain (2022ko azaroan baino 14.917 gehiago). Hotelek duela urtebete baino 8.722 bidaiari gehiago hartu dituzte. Bidaiari horien % 73 atzerritarrak dira. 2023ko hirugarren hiruhilekoan, Bizkaiko BPGd-ak urte arteko % 1,2ko igoera izan du, eta hiruhileko arteko % 0,4ko igoera. Bilboko aireportuak bere historiako azarorik onena erregistratu du: 452.302 bidaiari, 2022ko azaroan baino 69.540 gehiago. Bilboko Portuan 2,5 milioi tonako trafikoa erregistratu da azaroan, aurreko urteko hil berean baino % 3,1 gehiago. 	<p>Lan-merkatua</p> <p>Afiliatutako biztanleak (kop.) 191.701</p> <p>Erregistratutako langabeak (kop.) 21.106</p> <p>Erregistratutako kontratuak 12.089</p> <p>Merkataritza</p> <p>Saltoki handiak eta elikagaien kateak: salmenta-indizea (2015. urtea= 100eko oinarria) 115,8</p> <p>Turismoa</p> <p>Bidaiarien sarrera (kop.) 86.631</p> <p>Ostatu-gauak (kop.) 155.646</p> <p>Ekonomia eta enpresa</p> <p>Bizkaiko BPGd-a (2015. urtea= 100eko oinarria) 117,0</p> <p>Garraioa</p> <p>Bidaiarien aireko garraioa (kop.) 452.302</p> <p>Salgaien itsas garraioa (milioi tona) 2,5</p>	<p>0,9*</p> <p>-0,5*</p> <p>-1,6</p> <p>-0,3</p> <p>11,2</p> <p>10,6</p> <p>1,2</p> <p>18,2</p> <p>3,1</p>	<p>Aza.</p> <p>Aza.</p> <p>Aza.</p> <p>Aza.</p> <p>Aza.</p> <p>Aza.</p> <p>2023ko 3. HH</p> <p>Aza.</p> <p>Aza.</p>

DATU BAT

% **1,2** urte artean
Bizkaiko BPGd-a

LAN-MERKATUA

Erregistratutako langabezia

Azaroan 99 langabe gutxiago erregistratu ziren, hau da, hilabete arteko $-0,5\%$ gutxiago, eta 21.106 langabe daude udalerrian.

Langabezia-tasa jaitsi egin da gizonen eta emakumeen artean, $-0,1\%$ eta $-0,7\%$, hurrenez hurren. Datu absolutuetan, hilabetea ixteko, emakumeen artean langabezia gehiago jaitsi da (87 gutxiago) gizonekin alderatuta (hamabi gutxiago).

Gazteenen taldean soilik igo da langabezia ($1,9\%$ eta 34 langabe gehiago), gainerako talde guztietan, aldiz, behera egin du. Langabeziak behera egin du 25-44 urtekoen artean, $-1,1\%$ eta 81 gutxiago, eta 45 urte eta gehiagokoaren artean, $-0,4\%$ eta 52 langabe gutxiago.

Sektoreka, langabezia igo da Lehen sektorean ($2,7\%$ eta 10 langabe gehiago) eta Eraikuntzan ($0,9\%$ eta 12 gehiago). Langabezia jaitsi da Industrian ($-2,0\%$ eta 30 gutxiago) eta Zerbitzuen sektorean ($-0,8\%$ eta 126 gutxiago). Lehen enpleguaren bila ari direnen artean $1,2\%$ igo da langabezia (35 langabe gehiago).

Benchmarkina Espainiako bost hiriburu handienetan (G-5) erregistratutako langabezia-tasa jaitsi da aurreko hilaren aldean. Jaitsierarik adierazgarriena Valentzian erregistratu da ($-1,8\%$) eta Madrilen bakarrik igo da langabezia ($0,5\%$).

Euskal hiriburuen multzoan (G-3), erregistratutako langabezia-tasa $-1,6\%$ jaitsi da. Behera egin du Donostian ($-0,8\%$), Gasteizen ($-2,8\%$) eta Iruñean ($-0,2\%$).

Langabeziak behera egin du EAEn ($-1,4\%$). Langabezia gehien jaitsi den lurraldeak Araba ($-2,4\%$), Bizkaia ($-1,2\%$) eta Gipuzkoa ($-1,1\%$) dira.

Populazio afiliatua

Azaroaren amaieran, Bilboko enpresetan 191.701 afiliatu zeuden, hau da urrian baino 1.694 enplegu gehiago, hau da, $0,9\%$ gehiago.

Araubideen arabera, hilabete batetik bestera afiliazioak gora egin du Orokorrean, 1.655 enplegu gehiagorekin; Etxeko langileenean, 36 gehiagorekin, eta Araubide berezietan (Nekazaritza eta Itsasoa), hamaika gehiagorekin. Langabezia jaitsi da Langile Autonomoen Araubide Berezian, eta azaroan zortzi enplegu gutxiago izan ditu.

Sektoreka, Zerbitzuek 1.611 afiliatu gehitu dituzte ($0,9\%$), Industria eta Energiak 83 gehiago ($1,0\%$) eta Eraikuntzak bederatzita gehiago ($0,1\%$). Enpleguak behera egin du Lehen sektorean: 11 gutxiago ($-4,2\%$).

Erregistratutako langabeak

Hilabete arteko Δ

Azaroa	21.106 pertsona
	$0,5\%$ ▼
Emakumeak	$0,7\%$ ▼
Gizonak	$0,1\%$ ▼

Benchmarkina

Hilabete arteko Δ

Bilbo	$0,5\%$ ▼
G-5	$1,1\%$ ▼
G-3	$1,6\%$ ▼

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Populazio afiliatua, araubideen arabera

Hilabete arteko Δ

Azaroa	191.701 pertsona
	$0,9\%$ ▲
Araubide Orokorra	$1,0\%$ ▲
Autonomoak	$0,0\%$ =
Etxeko Sistema Berezia	$0,6\%$ ▲
Beste batzuk	$1,5\%$ ▲

Zerbitzuetan, eta datu absolutuetan, igoerak nabarmentzen dira Hezkuntzan, Jarduera administratibo eta osagarrietan, Merkataritzan, Jarduera profesionalean, Ostalaritzan eta Garraio eta biltegiatzean (330, 308, 241, 237, 158, eta 134 gehiago, hurrenez hurren). Behera egin dute Administrazio publikoetan, Informazio eta komunikazioetan, Jolas-jardueretan eta Ostatuetan (21, 15 eta 10 gutxiago, hurrenez hurren).

Urte artean enpleguak % 3,1eko hazkundera izan du, hau da, 5.705 afiliatu gehiago. Langile autonomoen araubidean soilik galdu dira afiliatuak

(-% 1,9), eta 24 hilabete dira jarraian behera egiten.

Sektoreka, Zerbitzuek 5.327 afiliatu gehitu dituzte (% 3,2), Eraikuntzak 204 (% 2,2) eta Industriak 196 (% 2,3). Lehen sektoreak soilik galdu du enplegua, 30 gutxiago (-% 10,7). Hezkuntza eta Informazio eta komunikazioen adarretan hazkunde absolutuak nabarmentzen dira, 1.665 eta 1.173 afiliatu gehiago, hurrenez hurren.

Benchmarkina Espainiako bost hiriburu nagusien multzoan (G-5) afiliazioak % 1,3ko gorakada izan du aurreko hilaren aldean. Afiliazioak gora egin du hiriburu guztietan. Valentzian izan da gorakada erlatiborik esanguratsuena (% 1,5).

G-3ko hiriburuetan, batera hartuta, afiliatuen kopurua % 0,8 hazi da. Gasteizek eta Donostiak % 0,7 afiliatu gehiago dituzte eta Iruñeak % 1,1.

EAE osoan, afiliatuak % 0,5 hazi dira hil artean. Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak ere afiliatu gehiago dituzte: % 0,7, % 0,5 eta % 0,3, hurrenez hurren.

Erregistratutako kontratuak

Azaroan 12.089 kontratu formalizatu ziren Bilboko enpresetan, hau da, aurreko urteko hilabete berean baino -% 1,6 eta 195 kontratu gutxiago. Urtetik urtera murriztu egin dira emakumeei egindako kontratuak (331 gutxiago) eta gora egin dute gizonei egindakoak (136 gehiago).

Adin-tartean arabera, 25 urtetik beherakoei egindako kontratuak soilik igo dira, % 1,7 gehiago, hau da, 45 kontratu. Erregistratutako kontratuen % 50 25-44 urtekoei dagokie (6.046 kontratu), % 27,8 45 urtetik gorakoei (3.362) eta gainerako % 22,2 25 urtetik beherakoei (2.681).

Sektore guztietan jaitsi dira kontratuak: Zerbitzuetan (-% 0,4, 47 gutxiago), Eraikuntzan (-% 15,5, 58 gutxiago), Industrian (-% 16,5, 82 gutxiago) eta Lehen sektorean (-% 61,5, 8 gutxiago).

Afiliatuak, jarduera-sektoreen arabera

Hilabete arteko Δ

Azaroa	191.701 pertsona
	% 0,9 ▲
Zerbitzuak	% 0,9 ▲
Eraikuntza	% 0,1 ▲
Industria	% 1,0 ▲
Lehen sektorea	% 4,2 ▼

Benchmarkina

Hilabete arteko Δ

Bilbo	% 0,9 ▲
G-5	% 1,3 ▲
G-3	% 0,8 ▲

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Erregistratutako kontratuak

Urte arteko Δ

Azaroa	12.089 pertsona
	% 1,6 ▼
Emakumeak	% 4,6 ▼
Gizonak	% 2,6 ▲
Lehen sektorea	% 61,5 ▼
Industria	% 16,5 ▼
Eraikuntza	% 15,5 ▼
Zerbitzuak	% 0,4 ▼
Kontratatutako pertsonak	% 1,2 ▲

Aldi baterako lan-kontratuak kontratu guztien % 73,7 izan dira azaroan. 8.902 pertsona kontratatu dira eta % 55,9 emakumeak dira.

Kontratu-txandakatzearen indizea hau da: pertsona bakoitzeko 1,36 kontratu.

MERKATARITZA

Saltoki handiak eta elikagaien kateak

Bizkaiko saltoki handietako eta elikadura-kateetako salmentak, azaroan, -% 0,3 jaitsi dira urte batetik bestera, lan-egutegi homogeneoari dagokionez. Aurreko hilabetearekin alderatuta, -% 0,2 jaitsi dira salmentak.

Elikagaien salmentak -% 0,9 jaitsi dira 2022ko azaroarekin alderatuta, eta gainerako produktuei dagozkionak % 0,7 igo dira aldi berarekin alderatuta.

Bizkaiko saltoki handietako landunen kopuruak % 3,5 egin du gora urte batetik bestera, eta hamasei hilabetez jarraian gora egin du.

Lurraldeka, saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentek behera egin dute Gipuzkoan (-% 0,5) eta gora Araban (% 0,3). EAEn, orokorrean, -% 0,3 murriztu dira.

Saltoki handiak Bizkaia

Urte arteko Δ

Azaroa	115,8
Salmenta-indizea	% 0,3 ▼
- Elikadura	% 0,9 ▼
- Gainerako produktuak	% 0,7 ▲
Landunak	% 3,5 ▲

TURISMOA

Bilboko hotel-establezimenduetan 155.646 ostatu-gau erregistratu dira azaroan, hau da, % 10,6ko hazkundea egon da urtetik urtera (14.917 ostatu-gau gehiago).

Bidaiarien sarrerak % 11,2 egin du gora, batez ere atzerriko bidaiarien artean (urtetik urtera % 23,7 igo da), hilabete honetan hoteletan sartu diren bidaiari guztien % 38,4 izan baitira atzerrikoak.

Estatutik bertatik datozenek % 4,6ko gorakada izan dute urtetik urtera, ondoz ondoko zazpigarren hilabetea izan da beheranzko joera horrekin.

Jaitsiera txiki bat izan da batez besteko egonaldian: bidaiari bakoitzeko 1,80 ostatu-gau daude.

Logela eskuragarriko diru-sarrerak 62,2 eurokoak dira, % 14,7 gehiago urte artean.

Ostatu-gauak

Urte arteko Δ

Azaroa	155.646 ostatu-gau
	% 10,6 ▲
Hiru izar eta gehiagoko hotelak	% 2,9 ▲
Gainerako hotelak eta ostatuak	% 39,7 ▲

Bidaiarien sarrera

Urte arteko Δ

Azaroa	86.631 sarrera
	% 11,2 ▲
Nazionalak	% 4,6 ▲
Atzeritarrak	% 23,7 ▲

Batez besteko egonaldia

Urte arteko Δ

Azaroa	1,80 ostatu-gau/bidaiari
	% 0,55 ▼

Sektorearen errentagarritasun adierazleak

Urte arteko Δ

Logela bakoitzeko eguneko batez besteko tarifa (€)	% 4,6 ▲
Diru-sarrerak libre dagoen logelako (€)	% 14,7 ▲

Benchmarkina. Euskal hiriburuak aintzat hartuta (G-3), hoteletako ostatu-gauen bilakaera positiboa izan da, % 8,5 hazi da urtetik urtera. Gasteizen % 17,3 hazi dira, Donostian,% 11,1 eta Iruñean % 8,2.

Bestalde, estatuko hiriburu nagusietan (G-5) ostatu-gauek % 7,5ko gorakada izan dute. Multzo horretako hiriburu guztietan areagotu da ostatu-gauen kopurua. Zaragozan egon da gorakadarik handiena (% 13,9).

EAE osoan hazkundera % 8,8koa izan da aurreko urteko azaroaren aldean.

EKONOMIA

Bizkaiko BPGd-a

Bizkaiko barne produktu gordinak % 1,2 egin du gora urtetik urtera 2023ko hirugarren hiruhilekoan. Euskal ekonomian, orokorrean, % 1,6 egin du gora.

Bizkaiko ekonomiak, hirugarren hiruhilekoko berrikusketen ostean, ondoko ondoko hamar hilabete daramatza BPGd-an hazkunde positiboa izaten.

Hiruhilekotik hiruhilekorako aldakuntzaren baldintzetan, Bizkaiko BPGd-a % 0,4 igo da eta, ondorioz, hazkundera aurreko hiruhilekoan izandakoa baino handiagoa izan da (% 0,3). Bestalde, EAEn hazkundera % 0,2koa izan da.

EAE osorik hartuta, sektore guztiek izan dute hiruhilekotik hiruhilekorako bilakaera desberdina: Industrian eta Eraikuntzan jaitsi egin dira (-% 2,4 eta -% 0,2, hurrenez hurren) eta Zerbitzuetan eta Nekazaritzan igo egin dira (% 1,0 eta % 9,9, hurrenez hurren).

GARRAIOA ETA MUGIKORTASUNA

Aireko garraioa

Bilboko aireportuak 452.302 bidaiari izan ditu azaroan (iritsierak eta irteerak kontuan hartuta), hau da, aurreko urteko hilabete berean baino % 18,2 eta 69.540 bidaiari gehiago. Eraitza horiekin, gainera azaroko daturik onena lortu du, funtzionatzen hasi zuenetik.

Barne-hegaldietan 30.501 bidaiari gehiago izan dira (% 12,1) urte batetik bestera, baita nazioartekoetan ere, % 30,0 gehiago eta 30.129 bidaiari gehiago.

Benchmarkina

Urte arteko Δ

Bilbo	% 10,6 ▲
G-5	% 7,5 ▲
G-3	% 12,1 ▲

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza

G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Barne-produktu gordina Bizkaia

III. hiruhilekoa

Urte arteko Δ	% 1,2 ▲
Δ Hiruhileko artekoa	% 0,4 ▲

Hiruhilekoko BPGd-a (milioi €)	11.764,0
---------------------------------------	----------

Aireko garraioa

Urte arteko Δ

Azaroa	452.302 bidaiari
	% 18,2 ▲
Barne-hegaldietan	% 12,1 ▲
Nazioarteko hegaldietan	% 30,0 ▲
Salgaiak (kg)	% 7,5 ▲
Hegaldiak	% 10,5 ▲

Hilean zehar egindako hegaldiak, iritsieren eta irteeren artean, 3.686 izan dira (% 10,5eko hazkundea), eta garraiatutako salgaiak ere igo egin dira (% 7,5).

Urtarriletik azarora 5.865.826 bidaiari metatu dira, aurreko urteko aldi berean baino % 23,9 gehiago, hau da, 1.132.018 bidaiari gehiago.

Benchmarkina Espainiako bost hiri nagusien barruan (G-5), urtetik urtera % 13,0ko igoera kontabilizatu da bidaiariei dagokienez. Zaragozan izan ezik (-% 9,8), taldeko aireportu guztietan bidaiarien kopuruak gora egin du. Bartzelona da altuena (% 18,1) eta Madril baxuena (% 8,8).

G-3 multzoan, bidaiarien trafikoari begira, % 0,5 handitu da urtetik urtera. Donostian % 16,5 igo da. Iruñean eta Gasteizen, aldiz, jaitsi egin da, -% 1,0 eta -% 23,0 hurrenez hurren.

Benchmarkina

Urte arteko Δ

Bilbo	% 18,2 ▲
G-5	% 13,0 ▲
G-3	% 0,5 ▲

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Itsas garraioa

Bilboko Portuak 2,5 milioi tonako trafikoa izan zuen azaroan, hau da, % 3,1 gehiago aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuta.

Solteko salgai likidoen trafikoa (petrolioa eta gasa, funtsean) portuan azaroan salgaien % 66,1 izan da, eta urte arteko % 11,9ko igoera erregistratu du. Solteko gai solidoen trafikoa (zerealak, soja eta ikatza, besteak beste) -% 27,4 egin zuen behera, eta salgai orokorrek -% 1,3 egin zuten behera ere bai.

Bidaiarien itsas garraioan, 4.306 bidaiari zenbatu dira hilabetearen amaieran.

Azaroan hiru itsas bidaia eta 3.259 itsas bidaiari erregistratu dira.

Urteko metatutako datuari dagokionez, urtarriletik azarora, 30,4 milioi tona lortu dira portuko trafikoan, aurreko urteko epe berean baino % 2 gehiago.

Itsas garraioa Azaroa

Δ Urte artekoa

Portuko trafikoa	2,5 milioi tona % 3,1 ▲
Bidaiarien garraioa	4.306 bidaiari % 18,8 ▼
Itsas bidaiariak (kop.)	3.259 % 82,3 ▲

ADIERAZLEEN TAULA


	Azken data	Urtetik urterako aldakuntza (%) *aurreko aldia	Azken datuaren data
Lan-merkatua			
Erregistratutako langabeak (kop.)	21.106	-0,5*	2023ko aza.
Afiliatutako biztanleak (kop.)**	191.701	0,9*	2023ko aza.
Erregistratutako kontratuak (kop.)**	12.089	-1,6	2023ko aza.
Biztanleria aktiboa (milakotan)	158,8	0,0*	2023ko III. HH
Biztanleria landuna (milakotan)	147,4	0,8*	2023ko III. HH
Langabeak (milakotan)	11,5	-8,7*	2023ko III. HH
BAlko langabezia-tasa (%)	7,22	-0,71 pp	2023ko III. HH
Merkataritza			
Konsumoko prezioen indizea (KPI)***	113,2	3,5	2023ko aza.
Afiliatuak**	19.475	-0,6	2023ko aza.
Txikizkako merkataritzako salmentak (indizea)***	103,8	2,9	2023ko III. HH
Saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentak	115,8	-0,3	2023ko aza.
Turismoa			
Bidaia-ien sarrera	86.631	11,2	2023ko aza.
Ostatu-gauak	155.646	10,6	2023ko aza.
Batez besteko egonaldia (ostatu-gauak/bidaia-ia)	1,80	-0,55	2023ko aza.
Hoteletako okupazio-maila (%)	51,8	4,2 pp	2023ko aza.
Diru-sarrerak libre dagoen logelako ,(€)	62,2	14,7	2023ko aza.
Ekonomia eta enpresa			
Bizkaiko BPGd-a (milioi €)	11.764,0	1,2	2023ko III. HH
Industria-produkzioa (indizea)***	119,4	-1,5	2023ko urria
Merkataritza sozietate berriak	605	8,4	2023ko I., II. eta III. hiruhilekoak
Zerbitzuetako salmentak (indizea)***	108,5	3,5	2023ko III. HH
Etxebizitza berriaren batez besteko prezioa (m ²)	4.781,9	10,1	2023ko III. HH
Etxebizitza erabiliaren batez besteko prezioa (m ²)	2.860,4	2,7	2023ko III. HH
Garraioa			
Bidaia-ien aire bidezko garraioa	452.302	18,2	2023ko aza.
Hegaldiak	3.686	10,5	2023ko aza.
Salgaien itsas garraioa (milioi tonatan)	2,5	3,1	2023ko aza.

* Aldakuntza-tasa aurreko epearen aldean. ** Bilboko enpresetan. *** Bizkaia-ri dagokiona.


Iturriak: Geuk egina, Eustaten, EINren, Inklusio, Gizarte Segurantza eta Migrazio Ministerioaren, Eusko Jaurlaritzaren, Lanbideren, EEZPren, Merkataritza Erregistroaren, AENAREN, Estatuko Portuen, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bizkaiko Garraio Partzuergoaren datuetan oinarrituta.

GRAFIKOAK


Erregistratutako langabezia




Populazio afiliatua




Hotel-gauak



Bizkaiko BPGd-a



Aireportuko bidaiariak



Portuko trafikoa

